

2007-2008 ikasturteko hasiera ekitaldi akademikoa Biteri Ikastetxe Nagusian

2007/12/14

Azaroak 30-ean Biteri Ikastetxe Nagusiak 2007-2008 ikasturteko hasiera ekitaldi akademikoa ospatu zuen.

Bertan, Iosu Zabala eta Vixente Atxa –M.U.ko Errektorea eta MGEP-eko Zuzendaria- eta hainbat Ikastetxe Nagusiko zuzendariak egon ziren.

Aurreko ikasturteko memoria irakurri ondoren, Fernando Paricio jaunak “Autoritate kontzeptuaren garapena azken hamarkadetan zehar”, izenburuko ikasgai magistrala eskeini zuen.

Azkenik alde batetik, Fernando Paricio berari eta Eskolako irakasle den Miren Zubizarretari Ikastetxe Nagusiko Ohorezko Beka ezarri zitzaion, azken urte hauetan BIN-ekin izandako harreman estu eta beroagatik. Bestetik, partehartze eta lan paregabearen ondorioz, bederatzi egoiliarrek Ikastetxe Nagusiko Beka jaso zuten.

